denak, poz-pozik etxerantz abiatu ziren.
Eta hori hala bazan, sar dadila Kalabazan
eta atera dadila Gernika-Lumoko plazan.

Aritz Olea

L.H. 2. ZIKLOA.



Iraide Jaio Ormaetxea
“Nagusitan ile apaintzailea izatea gustatuko litzaidake”

# Idoia eta untxitxoa

Behin batean bazen mendian bizi zen untxitxo bat. Mendi hartatik hurbil, Idoia deitzen zen neskatxa bat bizi zen bere amarekin batera, etxe txiki eta zuritxo batean. Larunbat batean, Idoiak, ohetik jaiki zenean, mendira joatea pentsatu zuen eta amari honela esan zion:

—Ama, gaur mendira joan nahi dut. Utziko al didazu?

—Bai, baina ezin zara etxetik gehiegirik urrundu eta bazkaltzeko ordurako itzuli behar zara.

—Bai ama, etorriko naiz.

Orduan, motxila hartu zuen eta mendira joan zen.

Bidean, ikusten zituen animalia guztiei begiratzen gelditzen zen: txoriak, urtxintxak.......

Bapatean, beldurtuta zegoen untxitxo bat ikusi zuen.

Beldurtuta zegoen, hanka puskatuta zuelako. Idoia berarengana hurbildu zen, eta esan zion:

—Zer gertatzen zaizu? Zergatik zaude geldi-geldi?

Eta untxiak erantzun zion:

—Zulo batera erori naiz eta hanka apurtu dut, eta orain ezin naiz ibili.

Egon lasai, zuk nahi baduzu nire etxera eramango zaitut eta nire ama eta nirekin batera biziko zara



Eta hori egin zuten. Idoiak, untxia bere motxilan sartu zuen eta etxerantz joan zen. Etxera heldu zirenean, amari esan zion zer gertatu zen eta amak utzi zion untxia etxean edukitzen eta aurrerantzean hirurak batera bizi izan ziren.

Iraide Jaio

L.H. 3 maila



Asier Ortuondo

"Nire nahia gerrarik ez egotea da"

# TXAKUR AUSARTA

Behin batean bazen txakur bat oso gosetua eta zikindurik zegoena, eta galduta zegoena. Zakarrontzi batean bizi zen, eta gauetan hotz handia pasatzen zuen.

Goiz batean, kalera irten eta jateko zerbait aurkitu nahian, galdu egin zen jende artean. Hotzak hilik pasatu zuen gaua, eta goizean, gizon on eta jator batek jaso zuen eta bere etxera eraman zuen. Gizon hori alkatea zen, eta noski, jendea eta herria maite-maite zituenez, txakur hori oso ongi zaintzen zuen: garbitu, jaten eman, paseatzera atera eta berarekin jolasten zen egunero.

Arratsalde eguzkitsu batean, lapur gaizto bat kartzelatik ihes egin eta arazoak sortzen hasi zen: Bankuetan lapurretan egin, jendea hil eta etxeetan bonbak jarri. Alkateak hori jakitean bere polizi guztiak jarri zituen martxan; baina lapurrak denak garaitu zituen bere abileziarekin. Lapurra bere helburua betetzen hasi zen: alkatea bahitzea. Gauean leihotik sartu eta alarmak ebaki zituen, gero bere logelara sartu eta isil-isilik alkatea bahitu zuen.



Txakurra esnatu zenean alkatea aurkitzen saiatu zen, baina ezin. Hurrengo egunean, txakurra bere usaimenarekin alkatearen arrastoa aurkitzen hasi zen, eta eraikin zahar batera heldu zen.

Eskailerak igotzen hasten tranpa batean erori, eta handik irten zenean beste batean jausi zen, baina denak gainditu zituen.

Goi-goraino heldu zenean, han aurkitu zuen alkatea, baina mugitzen bazen erori egingo zen goitik-behera, 25. pisutik, eta orduan alkaterik gabe geratuko zren. Txakurrak bere ausardia guztiarekin alkatea salbu utzi, eta lapurrak ezer estu baino lehenago, bere atzetik joan zen. Baina lapurrak auto bat hartu eta abiadura handia hartu zuen, txakurra, ordea, lapurra baino azkarragoa zen, eta lasterbidea hartu zuen. Lapurrak beste bide bat hartu zuen, baina bide luzeena zen, eta gasolina amaitu zitzaionean txakurrak polizien zentralera deitu, eta poliziek lapurra harrapatu zuten eta kartzelara eraman zuten.

Alkatea salbu zegoen, eta txakurrari Nobel saria eman zioten alkatea eta herria salbatzeagatik eta lapurra atxilotzeagatik.

Txakurraren bizitza asko aldatu zen, eta txakur guztien inbidia izan zen

Historia hau hori baino hobeto bukatu zen.



Aner Ortuondo



Ainhoa Celaya Agirrezabal

"Eskulanak eta irakurtzea da gehien gustatzen zaidana"

# SORGINA ETA BASERRITARRAK

Bazen behin bi baserritar, Mikel eta Josu deitzen zirenak.

Sorgin bat ere zegoen; oso maltzurra zen eta gaztelu zahar batean bizi zen.

Baserritarrak egurra ebakitzen basora joan ziren baina hor barruan galdu egin ziren.

Zorionez, bide bat aurkitu zuten eta bide horretatik apur bat ibili eta gero gaztelu zahar bat ikusi zuten.

Mikelek hortik joateko bere lagunari esan zion baina Josuk gaztelura hurbiltzea proposatu zuen.



Biak adoz jarrita gaztelura sartu ziren, es kilarak igo eta logela batera joan ziren.
Han eguerdirarte geratu ziren.
Sorgin maltzurra pozoi lantegian egon zen eta zarata batzuk entzun zituenez logelarantza abiatu zen. Bat batean Josuk oinen taupadak entzun zituen eta Mikeleri abisatu zion.
Jarraieran Mikel eta Josu ohe azpian izkutatu ziren eta sorgin maltzurra sartu zenean baserritarrek sorgina ikusi zuten.



Sorginak logelan ezer ez zuenez ikusi pozoi lantegira itzuli zen.
Josu eta Mikel, sorginak han zer egiten zuen ikusteko, pozoi lantegira joan ziren eta isil-isilik pozoi bat hartuta sorginari bota zioten.
Sorgina ona bihurtu zen, eta gaztelua umeentzako jolas-parke berezia. Handik aurrera haur guztiak sorginaren gaztelura joaten hasi ziren.
Sorgina oso pozik zegoen, eta Mikel eta Josu beraien etxera bueltatu ziren

Aitor Elgezabal
Aritz Izagirre
Abel Armando

"Niri handitan futbolaria izatea gustatuko litzaidake eta zergaitik ez pilotaria"



# Eskolatik txangoan

Gipuzkoako herri txiki batean ez zegoen gauza handirik. Merkatu txiki bat, eskola, enparantza.

Behin eskolakoek, txango bat egitea bururatu zitza

-Nora nahi duzue joatea!- esan zien andereñoak umore o
nez.

Batak esan zuen Donostiako aquariora, besteak hondartzarae
beste batek pelota partidua ikustera.

-Baina denetara ezin gaitezke joan...- pentsakor erantzun z
en.

-Badakit! Denetara joangogara! - adierazi zuen ikasle bat
Andereñoa konforme geratu zen eta umeak ere bai. Bakarrik ger

tu zitzaien esateko ordua. Andereñoak larunbatean, goizeko zortzietan izango zela txango luze azaldu zien. Momentu horretan andereñoak zerrenda banatu zien zer eraman jakiteko: jatekoa, edariak eta azeitunak edo horrelako zerbait meriendatzeko. Bainujantzia ere eraman behar zuten. Heldu zen eguna. Denak poz-pozik zeuden. Autobusera igo eta hiruz palau ordu barru iritsiko zirela esan zien gidariak. Heldu ziren. Lehenik aquariora joan ziren. Bertan marrazoak, tortugak eta abar ikusi zuten. Hamabiak aldera irten ziren. Bainu jantzia jarri eta... hondartzara! Egun zoragarria zegoen egia esateko. Lauretan irten eta Donostia ezagutzera joan ziren. Orduan ikasle batek esan zuen:

- Noiz da partidua?
- Seiretan - erantzun zion berehala andereñoak.

Heldu ziren frontoira. Pelotari bikainak zeuden. Hasi zen partidua eta... Amaitu zenean urdinak irabazi zuten 20-22. Andereñoak esan zuen joan behar zutela. Autobusa hartu eta etxera. Behin etxean mutikoek gurasoei dena kontatu zieten.

Ordutik aurrera, urtero egiten zuten txango bat ongi pasatu zutelako.

Aitor Elgezabal


PASA
LABUR
BBK
RIOJA





Nile Uribarrena
"Athletic-eko futbolaria izan nahi dut"

# BI KATU MARTERA

Baziren behin bi katu, Miko eta Trini.

Mikok ile zuria zeukan, eta Trinik marroia. Mikok begi marroiak zituen eta Trinik beltzak. Biei gustatzen zitzaien jolastea.

Katuak astronautak ziren. Behin espaziontzia hartu eta Martera joan ziren esploratzera. Heldutakoan dena oso handia eta izugarria zen.







Trinik jolasteko gogoa zeukan, baina Mikok esan zion dena ikusi behar zutela arinago, ez galtzeko, eta gero jolastuko zutela. Dena ikusita ezkutaketara jolasten hasi ziren. Trini geratzen zen hogeita hamar arte kontatzen, eta Miko ezkutatzen. Gero Trinik hogeita hamar arte kontatu zuen eta bere laguna topatzen hasi zen.



Miko harri baten atzean zegoen ezkutatuta, eta gauza berde bat ikusi zuen. Ikustera joan zen... estralurtarrak ziren!

Miko beraiekin jolasten hasi zen.



Trini Topatzen zegoen eta ez zuen aurkitzen. Miko harri bat aztertzen hasi zenean extralurtarrek ospa egin zioten.

Trinik gauza berde bat ikusi eta begiratzera joan zen. Extra-lurtarrak ziren. Orduan galdetu zien Trinik ea Katu bat ikusi bazuten, eta erantzun zioten baietz, aurrerago zegoela harri bat aztertzen.

Trini harantz joan zen, eta Miko han zegoen, harria aztertzen.

Trinik esan zion Mikori jolasten zeudenean, beste gauza bat egitera ez joateko.

Handik aurrera, jolasten zeudenean, Miko ez zen urrun joaten.

Nile Uribarrena







Mikel Elgezabal Garmendia
"Biologoa edo albaitaria izatea gustatuko litzaidake, animaliak gustatzen zaizkidalako"

# Gauekoren sua

Baziren behin izaki misteriotsu batzuk. Bat Anboton bizi zen. Beste batek berriz basoa zaintzen zuen eta baziren izaki misteriotsu gehiago ere. Pertsonei burutatu zitzaien gizaki haiei izen bat jartzea. Adibidez:

Mari, Basajaun, Iratxo, Galtzagorri, Mielotxin, Mikelats, Atarrabi ... eta beste hainbat izen.

Marik bi seme eduki zituen Mikelats eta Atarrabi.

Behin Gaueko joan zitzaien bisitatzera. Gaueko deabrua zenez ez zien begirik ezta bistarik kendu.

Gauekok gauza bat proposatu zien:

- Zergaitik ez dugu magia proba bat egiten?
- Magia proba bat?
- Bai. Ea nork egiten duen gauza handiena.
- Bai!!

Eta han hasi ziren Mari eta Gaueko magia egiten eta Gauekok hasi zuen pokla. Honek gauza txar bat egin zuen. Herri osoa sutan jarri zuen. Mari su guztia itzaltzen saiatu zen baina ezin zuen itzali. Beraz Amaintxori deitu zion. Baina biek batera ere ezin zuten sua itzali. Ordurarte Marik euri zaparrada sortu zuen

Zaparradak, Mariren podereak eta Amaintxoaren poderekin batera su guztia itzali zuten. Gauekok Beldurraren beldurrez alde egin nahi izan zuen baina bere aurrean Basajaun, Mikelats, eta Atarabi zeuden. Beraz, Gaueko harrapatu eta Kobazulo batera, lotu eta denak batean sartu zuten. Eta Marik esan zuen gaztelaniaz:

"Animal legendario mito y ciencia dar poder a mis palabras, expulsar este mal"

eta herri osoa konpondu zen.







Mikel Elgezabal Garmendia
Seber Altube Ikastola
9 urte





Ander Ponte Saenz

"Kirola egitea asko gustatzen zait"

# TXERRI GARBIA

Behin batean Txerri munduan egon zen txerririk garbiena.



Hori txerri familia zikin baten bizi zen eta aitak esaten zion:

- Familia honetan ez zara biziko ezbazara zikintzen Kurrin, Kurrin.
- Ez inoiz ere ez!

Orduan etxetik joan zen mendira; han otso lodi bat aurkitu zuen eta esan zion:

- Zer egiten duzu zuk txerri hain garbia hemen basoan?
- Nire aitak esan zidan etxetik botako ninduela ez banintzen zikintzen.
- Zoaz hirira, bilatu Don Pepito Presidentea eta berak lagunduko dizu.

Hirira heldu zen eta Don Pepito Presidentea aurkitu zuen.

Txerri garbiak esan zion:

-Otso lodia bidali nau eta lagunduko didazula esan dit.

Segituan zer gertatu zitzaion kontatu zion.

Dana entzun eta gero Don Pepito Presidenteak agindu bat ipini zuen:

Txerri zikinak egunero garbitzea.

Orduan txerriak garbitzen hasi ziren eta txerri garbia etxera joan zen.

Bere aita dutxatzen zegoen eta bere ama ipurdia garbitzen.

Dutxatik atera zenean aitak esan zion:

-Telebistan atera zara Kurrin, Kurrin.

-Bai Don Pepito Presidentearekin.

Egun horretan amak afari goxoa prestatu zuen eta hortik aurrera pozik bizi ziren batera.







Daniel Sanchez
"Naturan egotea gustatzen zait eta bidaiak egitea"

"Lafkadio Triste dago"

Afrikako oihan ttiki baina txukun batean Lafkadio bizi da. Lafkadio herensuge gazte bat da; gorputza urdina du, eta burua gorria, bi hegal handi ditu, suaren kolorekoak, eta hauek astintzen dituenean dantzan hasten dira oihaneko arbolak eta hostoak eta hegaztiak. Lafkadiok oraindik buru bakarra du, baina bere nagusiak, Zireneo jaunak, zazpi ditu; bat gorria, bestea horia, hirugarrena urdina, laugarrena morea... Zazpi buru eta zazpi kolore; horregatik deitzen diote Ostadar herensugea. Lafkadio Triste dago. Ez dauka ezertarako gogorik. Bere aho zabaletik ez da surik irteten, ura baizik. Eta orain denek barre egiten diote, ez baitago munduan herensuge urjaurtitzaile bat baino gauza barregarriagorik. Ez daki zer gertatu zaion. Egun batetik bestera gertatu da aldaketa. Atzo sua botatzen zuen; gaur, berriz ura. Inork ez du arrazoirik ezagutzen. Ezta sendagile jaunak ere.

- Ez dakit, Lafkadio. Zinginan bainatu al izan zara?
- Ez, sendagile jauna. Ni udan soilik bainatzen naiz.
- Asko ibili al izan zara hegan?
- Ez.
- Beno, urarekin gendeari lagundu ahal diozu suhiltzaile bezala.
- Eskerrik asko sendagile jauna.
- Agur.







Enara Urlezaga Igartua

"Lagunekin jolastea eta musika egitea gustatzen zait"

# Basoaren Sekretua

Baziren behin Jon eta Ane izeneko neba-arrebak. Egun batean basora joatea erabaki zuten, beraien lagunekin batera.

Hurrengo egunean basoan ziren jadanik. Askaria jateko toki baten bila ezibiltzatean tokia aurkitu zutenean askaltzen hasi ziren. Hórretan zihardutela, ahots bat entzun zuten eta ikaratu egin ziren. Askaldu eta gero aurrera jarraitu zuten. Basoa iluna zegoen, gaua zen. Berehala lehengo ahots berbera entzun zuten. Gero eta ikaratuago zihoazen, bidearen amaieran etxola bat ikusi zuten, eta harantza abiatu ziren lasterka.

Etxola barruan zeudela, hotsak entzun zirenean eskutatu egin ziren. Norbait hitz egiten zegoen!

Jon, Ane eta bere lagunak etxola barruan eskutaleku baten bila hasi ziren. Eskutatu zirenean norbaitek hitz egin zuen esanez:

– Badakit non zaudeten, badakit non zaudeten eskutaturik...

Jon kalera irten zen eta ez zegoen inor, kalean pikla batean geratu zen. Bapatean zerutik zetorren ahots batek esaten zuen ozenki:

– Hemen nago zure gainean hemen nago zure....

Jon etxolara sartu zen eta lagunei esan zien norbait hitz egiten ari zela.



Herrian jendea arduraturik zegoen. Bitartean umeak ikaratuta zeuden, pentsatzen ez mounstrorik edo espiriturik zegoen.

Hurrengo egunean Jon, Ane eta bere lagunak basora irten ziren, Beldurrez eta arduraturik zeuden. Basoa lo zegoen eta bertatik nola irtengo ziren pentsatzen aritzen ziren bitartean...

Ane ez zegoen taldean, galdu egin zen. Orduan ahots hori basoarena zela ohartu ziren. Basoak hitz egiten zuela eta basoak isilpeko zerbait zuen galdetzen zioten beraien buruari. Basoak esan zuen:

— Nire sekretua hau da: hitz egiten dudala, ni izan naiz, Jendea basora etortzen denean ikaratzeko egiten dut. Orain dela denbora asko hona basora gizon talde bat etorri zen eta etxola hori egin zuten, basoa ebakitzera eta arbolak botatzera etorri ziren, baso erdi bat bota zuten eta gero hemen gelditu ziren. Ni hemen pixkat ikaratuta egoten nintzen, egun batean gizonak joan zirenean eta etxola hor utzi zutenean pentsatu nuen berriro itzuliko zirela eta plan bat egin behar nuen. Nire plana, jendeari ikaratzea zen. Zuek etorri zaretenean basoa ebakitzera etorri zaretela pentsatu dut, baina parkatu, ez nuen minik egin nahi.

Ane herrira bialdu dut, oso ikaratuta zegoen. Herrirako bidea hau da, zuek jarraitu bide honi eta herrira helduko zarete. Aneri esan beste batean etortzeko, agur.

— Eskerrik asko, esango diogu Aneri. Agur!!

Herrira heldu zirenean, herriari kontatu zioten abentura oso polita izan zela eta basora berriro joango ziren, eta hala egin zuten. Zuek ere bizitzan abentura hau pasatu nahi baduzue, aurrera.

Bizitzan gauza berri asko gertatzen dira.

Enara



Bingen Gutierrez
"Txistua jotea eta futbolean jolastea dira nire zaletasunak"



# AMONAREN AMANTALA

Iker sarritan joaten zen bere amona Ixeparen etxera asteburuak pasatzera.

Amona Ixepa kostaldeko herri txiki batean bizi zen, Ikerri asko gustatzen zitzaion amonaren etxera joatea. Alde batetik, herri hartan arrantza egiten zuelako bere lagunekin eta bestetik, bere amonak opariak egiten zizkiolako.

Ixepa emakume zaharra izan arren, oso atsegina zen, eta askoz ere gazteagoa ematen zuen, ez bere itxuragatik bakarrik, bere hitz egiteko modua ere gazteagoana bait zen. Beti egoten zen prest bere ilobarekin jolasteko edozein gauzatara, horregatik joaten zen Iker hain gustura bere amonaren etxera. Bere etxean baino askoz ere hobeto pasatzen zuen, denbora ere berehala pasatzen zitzaion.



Etxera itzultzeko eguna heltzen zenean, Iker triste jartzen zen, baina bere amonak esaten zion: ¡Iker, etorri datorren larunbatean! orduan mutikoak muxuak eman amonari eta baietz esaten zion.

Iker bere etxera joaten zenean, egunak kontatzen hasten zen; larunbata heltzeko zain.

Asteburu batean, betiko moduan Iker bere amonaren etxera joan zen, igandean bere urtebetetzea, amonarekin ospatzeko. Urtebetetze egunean Joxepak, bazkari goxoa prestatu zuen, baita ere pastel eder goxo bat eta gainean hamaika kandela jarri zituen, bere ilobak hamaika urte betetzen zituelako. Kandelak itzali ondoren, amonak bere ilobari esan zion, ze opari nahi zuen egitea eta Ikerrek bi aldiz pentsatu gabe, kainabera bat arrantzan egiteko esan zion. Amonak eskua amantaleko poltsikoan sartu eta kainabera bat atera zuen, mutikoa harrituta gelditu zen. Nola egin duzu hori amona? galdetu zion. Amonak honelaxe erantzun zion: gaur hemen ikusi duzuna ezin diozu inori kontatu gu bion arteko sekretu bat izan behar da, orain arte ez diot inori kontatu, baina badakit zuk ez diozula inori ezerko ere esango, zuregandik konfiantza handia dudalako. Mutikoak, amonari, halaxe izango zela zin egin zion.




Joxepak azaldu zion bere ilobari nola jabetu

zen soinean zeraman amantalaz.

Entzun ondo Iker: orain dela urte asko, gabon egun batean emakume eskale bat etorri zitzaidan janari eske, nik errukiturik, barrura sartu eta afaltzera gonbidatu nion, afaldu ondoren ohe bero bat eskaini nion lo egiteko, berak eskerrak emanez ohe barrura sartu zen. Hurrengo goizean ez zegoen inor ohean, baina aulki baten gainean nota bat zegoen, bertan hauxe jartzen zuen: zure borondate ona eskertzeko ohe gaineko armairu barruan amantal majiko bat utzi dizut. Gauzak behar dituzunean, eskua poltsikora sartu eta hortxe izango dituzu, ez sartu benetan ez baduzu behar.



Hauxe izan da istorioa, nik uste dut emakume hori sorgin bat zela.

Orain, amona Joxepa eta Iker, zoriontsu bizi dira amantalari esker.

Bingen Gutierrez
5. Maila